



## **Euskadiko I. Ornitologia Maratoiaren oinarriak**

(Sibley 1999, GTBC 2000 eta SEO/BirdLife 2015 arauen ildotik)

Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Espainiako Ornitologia Elkartearekin batera, eta Atariak, Urdaibai Bird Centerrek, Madariaga Dorreak eta Txingudi Parketxeak koordinaturik, hegaztiak behatzeaz gozatzeko ekitaldi honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Ingurumen hezkuntzako jarduera bat da, zeinetan nahi duten herritarrek oro parte hartu ahal izango duten. 24 orduz ahalik eta hegazti-espezie gehien identifikatzea da helburua —EAEko edozein lekutan—.

DATA: urriaren 3a, larunbata

NORENTZAT: herritarrok oro

IZEN-EMATEA: ataria@vitoria-gasteiz.org

### **1.- Espezieen zerrenda.**

- Espezie hauek baino ez dira aintzat hartuko: *Lista de las Aves de España. SEO/BirdLife 2012* (R. Gutiérrez, E. de Juana y J. A. Lorenzo) zerrendan ageri direnak eta D kategoriaren baitakoak (ikus D kategoriako hegaztien eranskina).
- Kantuaren bitartez eta begiz baino ezingo dira identifikatu hegaztiak. Hegaztiaren espezia identifikatzen ez bada —generoa eta taldea bakarrik identifikatzen badira—, espezia bakartzat zenbatuko da. Esate baterako, ikusten den hegazti bat *Puffinus sp.* gisa identifikatzen bada, eta gero beste ale bat *Puffinus yelkouan* gisa, behin bakarrik zenbatuko da.
- Zalantzazko jatorria duten hegaztiak, eta gizakiak sartuak edo birsartuak, Espainiako Hegaztien Zerrendako C kategorian ageri badira baino ezingo dira zenbatu. Bitxitasunak zenbatzekotan, dagokien deskribapena erantsi beharko zaie, eta [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) atariko Egiaztapen Batzordeak homologatu beharko ditu.
- Ikuskatzen diren hegaztien bizirik eta aske egon beharko dute —hegazti zaurituen bat aurkituz gero, hori bai zenbatu ahal izango da—, eta, beraz, ezingo dira bisitatu eratzunak jartzeko saioak egiten ari diren lekuak.
- Ezingo dira baliatu sistema elektronikoak edo apeuak hegaztiak detektatzeko, nahiz eta bai baliatu ahal izango dituzten lehiakideek metodo elektronikoak —CDak, mp3ak eta abar— hegaztiak gerora identifikatzeko, edo autoan —landan interferitzen ez duten bitartean, hots, hegaztiak erakartzeko edo detektatzeko baliatzen ez dituzten bitartean—. Bai ahal izango dute parte-hartzaileek txistu edo soinu egin, ahoarekin —beste tresnarik gabe—, hegaztiak detektatzeko.
- Gaueko fokuak debekatuta daude hegaztiak detektatzeko nahiz identifikatzeko, baita ibilgailuaren argiak horretarako erabiltzea ere. Esku-argiak edo kopetakoak baino ezingo dituzte erabili taldeko kideek, beretzat bakarrik, landan barrena ibili ahal izatea beste helbururik gabe.
- Taldeko kide guztiek identifikatu beharko dituzte hegaztiak oro, % 5 salbu —behatzaile bakarrak identifikatu ahal izango ditu horiek—.
- Ez da beharrezko, espezie bakoitzeko, taldekide guztiek hegazti bera ikustea.

### **2.- Eguna eta ordutegia.**

24 orduko iraupena izango du lehiaketak: 2015eko urriaren 3a, egun osoa, aurreko eguneko gauerditik hasi eta egun horretako gauerdira arte. Ordutegi horren barruan, libreki erabaki ahal izango dute taldeek noiz hasi eta noiz bukatu, eta ez dira behartuta egongo 24 orduz horretan aritzera.

Euskadiko I. Ornitologia Maratoian parte hartzeko egun baliaduna **urriaren 3a** izango da, **larunbata**, esan nahi baita ostiral gauerdian hasiko dela jarduera, eta larunbat gauerdian bukatuko.



### 3.- Geografia-eremua.

- EAEn antzemandako hegaztiak bakarrik sartuko dira emaitzen zerrendan.

### 4.- Batetik bestera joatea.

Era guztietako ibilgailuak erabili ahal izango dira, horrek espeziei eragiten ez dien bitartean. **Erabat debekatuta** egongo dira espezie mehatxatuak nahiz gainerakoak arriskuan jar ditzaketen ibilgailuak — hegazkin txikiak, autoak, lur orotako ibilgailuak, txalupak eta beste—, eta, halaber, horretarako seinaleztatutako eremuetatik kanpo zirkulatzeko. Era berean, debekatuta egongo da —horrek izan dezakeen eragina dela eta— bisitatzen diren lekuetan horretarako egokitutako lekuetatik kanpo oinez ibiltzea, hots, errepide, pista, bide, bidezidor eta antzekoetatik kanpo, baita hegaztiak arriskuan jar ditzakeen edozein ibilgailuren lurreratze edo erabilera oro ere.

Taldeko kide guztiek ibilgailu bera erabili beharko dute, eta elkarrekin bidaiatu. Era berean, taldeko kide guztiek elkarrekin ibili beharko dute, esan nahi baita ahoz zuzenean komunikatzeko aukera ematen dien distantziatik harago aldendu gabe elkarrengandik. Ezingo da erabili irrati-komunikazioko tresnarik, ezta telefono mugikorrik edo besterik ere, taldekideak elkarrekin komunikatzeko.

### 5.- Parte-hartzaileak.

- Edonork parte har dezakeen lehiaketa da Euskadiko I. Ornitologia Maratoia.
- Gutxienez bi parte-hartzailek eta gehienez hiruk osatu beharko dituzte taldeak.
- Izen-ematea doakoa izango da, eta Ataria Salburuko Hezeguneak Interpretatzeko Zentroan egin beharko da, telefonoz (945 254759), posta elektronikoz ([ataria@vitoria-gasteiz.org](mailto:ataria@vitoria-gasteiz.org)) edo zentro koordinatzaileetan horretarako eskainiko diren formularioak baliatuz. Maratoiaren oinarriak, baita emaitzak ere, zentroaren web-orrian egongo dira eskuragarri ([www.ataria.es](http://www.ataria.es)). **2015eko irailaren 30ean —asteazkenez— amaituko da** izena emateko epea, 24:00etan.
- Maratoian parte hartzen ez duten pertsonak lagundurik joan ahal izango dute taldeek, baina horiek ezingo dute lagundu, inolaz ere, hegaztiak antzeman edo identifikatzen. Taldeko kide ez den gidari bat baliatu ahal izango da, taldeari bidea egiten laguntzeko, baina ezingo du hegaztiak detektatu edo identifikatzeko laguntzarik eman.

### 7.- Jokabidea eta etika.

- Taldeko kide guztiek arau hauen jakitun izan beharko dute lehiaketa hasi aurretik.
- Parte hartzen duten talde guztiek natura eta hegaztiak errespetatzeko **kode etikoa** bere egina dutela ulertuko da. Horrenbestez, jakintzat jotzen da ez dituztela hegaztiak jazarriko, ezta harrapatu ere, ez dutela apeu elektronikorik jarriko haiek erakartzeko, eta ahalik eta gehien errespetatuko dituztela habiak nahiz ugaltzeko lekuak.
- Autonomia-legedia nahiz Espainiako legedia bete beharko dituzte taldeek, eta, hortaz, abiadura-mugak, jabetza pribatua eta beste errespetatu.

### 8.- Bestelako argibideak.

- Lehiaketan, taldeek ezingo dute jaso informaziorik kanpoko beste iturri batzuetatik. Beraz, ezingo da harremanetan jarri —telefonoz, irratis...— lehiaketatik kanpoko pertsonekin, espezieak detektatzeko.
- Ikusitako espeziei buruzko informazio publikoa eskaintzen duten gune babestuak bisitatzen direlarik, hori bai kontsultatu ahal izango da, denon eskura dagoen jendaurreko informazioa izaki. Berdin jokatu da informazioa ematen duten interneteko orrietara jotzeari dagokionez. Parte hartzen duten beste talde batzuei komunikatu ahal izango diote informazio hori taldeek.
- Lehiaketaren egunaren aurretik jasotako informazio oro baliatu ahal izango da lehiaketan.



- d. Ezingo dira bisitatu gune babestu mugatuak —hegaztiei kalterik ez eragite aldera—, eta, baimen bereziak behar badira —ordutegiagatik edo besterengatik— gune babestu jakinen bat bisitatzeko, taldeak berak eskatu beharko ditu. Jarraibide horiek bete ditzatela eskatzen diete antolatzaileek parte hartzen duten talde guztiei.

#### 9.- Puntuazioa.

- a. Ikusitako espezieen zerrenda **www.ornitho.eus** herritarren zientzia-atarira igo beharko da. Horretarako, taldeko kideetako batek plataforma horren erabiltzaile gisa erregistratuta egon beharko du. Beste "ornitho" atari batean edo mugikorretarako NaturaList aplikazioan izena emanda egonez gero, ez da beharrezko alta-formularioa betetzea, horietan erabiltzen diren erabiltzaile izena eta pasahitza balia baitaitezke [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) atarian.
- Hala izan ezean, "Erregistratu" atalean sakatu behar da, plataformaren web-orrian. Pausu hori eman ondoren, izena emateko formularioa zabalduko da. Bete eta onartu ondoren, mezua jasoko du parte-hartzaileak posta elektronikoz, pasahitzarekin. Hortik aurrera, plataforman sartzetik izango du, erabiltzaile-izena (=posta elektronikoa) eta pasahitza erabiliz. Datu pertsonalak aldatzekotan — pasahitza barne—, 'Nire kontua/Datu pertsonalak' menuan klikatu beharko da, edo 'Nire kontua/Posta elektronikoa eta pasahitza' menuan. Firefoxerako optimizatua dago plataforma.
- b. Hegaztiak ikusten diren unean bertan —NaturaList aplikazioaren bitartez— nahiz saioa bukatu ondoren —edozein ordenagailutatik— igo ahal izango dira aipamenak [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) plataformara. Nolanahi ere, maratoia bukatzen denetik lau ordu igaro aurretik bidali beharko dira emaitzak.
- c. Inolako zalantzarik gabe identifikatutako espezieak bakarrik utzi beharko ditu jasota talde bakoitzak.
- d. Espezie-kopururik handiena antzeman eta identifikatzen duen taldea izango da irabazlea. Berdinketa gertatuz gero, leku gutxien bisitatu dituen taldeak eskuratuko du saria — [www.ornitho.eus](http://www.ornitho.eus) atariko 1 x 1 km-ko laukiak eta puntu horiak aintzat hartuko dira—.
- e. Batzorde antolatzailearen web-orrian argitaratuko dira maratoiaren emaitzak, 2015eko urriaren 4ko —igandea— goizeko 9:00etatik aurrera. Irabazle suertatzen den taldeari telefonoz jakinaraziko zaio.
- f. 2015eko urriaren 4an —igandea— izango da sari-banaketa, 13:00etan, Ataria Salburuko Hezeguneak Interpretatzeko Zentroan, Hegaztien Mundu Egunarekin bat eginez. Egun batzuk lehenago iragarriko da zein izango den saria, Atariaren eta zentro laguntzaileen web-orrietan.
- g. Era berean, parte hartu izana egiaztatzen duen agiria emango zaie maratoia egiten duten guztiei.
- h. Sor litezkeen arazoak ongien iruditzen zaien moduan ebazteko eskumena izango dute antolatzaileek.**

## Eranskina.

Espainiako Hegaztien Zerrendan D gisa sailkatutako espezieak.

### **ANATIDAE**

Bi koloreko suiriria	<i>Dendrocygna bicolor</i>
Suiriri musuzuria	<i>Dendrocygna viduata</i>
Elur-antzara	<i>Anser caerulescens</i>
Kanadako branta txikia	<i>Branta hutchinsii</i>
Karolinako ahatea	<i>Aix sponsa</i>
Zertzeta gorritzta	<i>Anas cyanoptera</i>

### **PHALACROCORACIDAE**

Ubarroi afrikarra	<i>Phalacrocorax africanus</i>
-------------------	--------------------------------

### **CICONIIDAE**

Tantalo afrikarra	<i>Mycteria ibis</i>
-------------------	----------------------

### **THRESKIORNITHIDAE**

Mokozabal afrikarra	<i>Platalea alba</i>
---------------------	----------------------

### **ACCIPITRIDAE**

Sai txanoduna	<i>Necrosyrtes monachus</i>
---------------	-----------------------------

### **COLUMBIDAE**

Namaqua usapala	<i>Oena capensis</i>
-----------------	----------------------

### **MIMIDAE**

Burla-txoria	<i>Mimus polyglottos</i>
--------------	--------------------------

### **FRINGILLIDAE**

Basamortuko gailupa	<i>Rhodospiza obsoleta</i>
---------------------	----------------------------

### **EMBERIZIDAE**

Berdantza siberiarra	<i>Emberiza cioides</i>
----------------------	-------------------------